

GREBA EGUNA ANTOLATZEKO IRIZPIDEAK

CRITERIOS PARA ORGANIZAR LA JORNADA DE LA HUELGA

HUELGA FEMINISTA GENERAL
GRÈVE FÉMINISTE GÉNÉRALE

GREBA
FEMINISTA
OROKORRA

AZAROA NOVIEMBRE NOVIEMBRE



Azaroaren 30ean GREBA FEMINISTA OROKORRA egingo dugu Euskal Herrian. Herriz herri, auzoz auzo, herrialdeka zein eskualdeka antolatu gara eta horren isla izango da eguna bera ere. Bakoitzak bere beharren eta testuinguruaren araberako irizpideak erabiliko ditu egunaren diseinua egiteko, baina **hemen barnebiltzen ditugu Euskal Herrian koordinatutako hainbat ideia eta proposamen:**

Greba 24 ordukoa da, **egun osoan zehar**, denon bizitza duinen aldeko aldarriak, zaintza eskubide kolektiboaren aldekoak, sistema publikoa indartzearenak, pribatizazioaren aurkakoak zein sistema iraultzeko deia zabalduko dugu.

Gaueko 00:00etan, egunari hasiera emateko ekimenak egin daitezke:

- Grebara batzeko deia, edukiak eta aldarriak zabaltzeko kuñarekin kalejirak kaleetan zehar propaganda zabaltzen den bitartean.
- Txupinazoak, datorren borroka egunari hasiera emanez.
- Herrietako kanpandorretatik, kanpai edo sirenekin deiak.
- Kazeroladak...

Goizaldeko piketeak:*

Sindikatuaren funtzioa izan ohi da enpleguaren esferan artikulatzen diren piketeen dinamizazioa. Hau da, lan zentroetako “produkzioa” gelditzeko tresna bat izaten diren mobilizazio hauek dinamizatzeko paper protagonista izan ohi dute.

Eskualdeka sindikatuak elkartuko dira, pikete guneak aurreikusi, greba komiteetara informazioa eraman eta kontraste lanak egiteko. Greba komiteetan pikete guneen ahalik eta informazio gehiena izatea komeni da, gero horietara hurbiltzeko deialdiak egiteko edota momentua nola komunikatu pentsatzeko.

Egunean bertan piketeen dinamizazioan lidergotza izango duten lantaldeak antolatzen saiatuko gara: Beto feminista egonda, gainera, Greba Batzordeetan parte-hartzen duten gizonek ere ardura batzuk hartu ditzakete gainontzeko gizonekin lanketak egiterako orduan.

Helburuak:

1. Greba egiteko arrazoiak zabaltzea (pikete informatiboak)
2. Ahalik eta jende gehienak greba egitea bultzatzea eta lan-jardun “normala” oztopatzea
3. Desnormalizazioa eta lan egun normal bat ez dela irudikatzea

Ideiak:

- Piketeetan botako diren leloei buelta bat ematea eta interpelatiboagoak izatea. Adibidez, eremu maskulinizatuetan eskirolak diren gizoni “zuk ere zaintza beharko duzu” edo “zaintza lanak banatu”. Gizonkeriak salatzeke ere abestiren bat, leloren bat... sortu daiteke.
- Gizonak interpelatzeko elementu eta iruditegi ezberdinak erabili (pikete edo mobilizazioetarako balio dezake): “harrikoa” egiteko eskularruak edo fregonak ematea.
- “Pikete klasikoak” egitea zaintza pribatizatzen duten enpresen kontra, negozioa egiten ari diren horiek markatzea: zuzendarien bulegora sartu...
- Poligono sarrerak oztopatzen ditugunean mozketak egitea zaintzako elementuekin: xaboa, motxoak, gurpildun aulkiak...

**Piketeetarako konpromisoak beste dokumentu batean.*

- Kotxe/bizikleta/oinezkoen karabanak
- Markajeak
- Plantilak leloekin
- Eskuorriak lema proposamenekin
- Kuña bat piketeetarako

Eguerdiko piketeak:*

Greba egun honetan, zaintza langileak eta greba egiteko greba-eskubidea urratuta duten langileen protagonismoa indartu nahi dugu. Kontraesan eta indarguneetariko bat izan da prozesu honetan zaintza langileen parte hartzea, jakinik, askok eta askok ezingo zutela greba eguneko lanuzteetan parte hartu.

Jardunaldi honetan, eta greba prestatzeko prozesu osoan zehar, formatu ezberdinak sortu nahi ditugu greba egiteko eskubidea urratu zaien presentzia eta protagonismoa bultzatzeko eta bermatzeko.

Izan ere, asko dira "ohiko greba" egiteko zailtasunak dituzten sektoreak eta errealitateak (gehienak emakumeak); gutxieneko zerbitzu altuak edo absolutuak dituzten zaintza-sektoreko langileak, atzerriartasun lege arrazista eta kolonial baten pean bizi diren emakume migratuak, etxeko langileak eta behin-behineko eta ezkutuko ekonomian lan egiten duten zaintzaileak, zaintzen dituzten pertsonak zaintzeari utzi ezin dioten amak eta amonak, landa-eremuko emakumem prekarioak...

Zentzu horretan, orain arte kontuan hartzen ez ziren subjektuei espazio eta tokia ematen dien greba feminista denez, errealitate zehatzetatik baloratu nahi ditugu prozesuan egoteko eta parte hartzeko moduak eta greba-eguna bera.

Horretarako, 11:00etatik eta 12:30ak bitarte, mobilizazio momentuak piztu nahi ditugu. Goizean zehar jende kopuru handia elkartzeko momentu gisa irudikatzen da, komunikabideak ere bertaratzeko aukera zabalduz.

- Etxetik ekintza: zapiak eskegitzea eta mugitzea balkoietan, atxikimendua eta grebarekiko elkartasuna erakutsiz, zaintzeari utzi ezin diotenen aldetik.
- Ekintza koordinatua/12:00ak ladera; salaketarako performancea, hainbat hiriburutako etxeko langileen protagonismoarekin, hainbat erakunde publiko interpelatuz.
- Zaintza eremuetan kafe solidarioa/hamaiketako bateratua? eskaini.
- Txalo zaparradak egin.
- Zaintza esparruko prekarietatea azaltzen duten datuak zabaldu kaleetan propagandarekin.
- Zaintza langileen aldeko murala osatu.
- Markajeak egin zaintza zerbitzuen pribatizazioaren erantzuleei.
- Zaintza langileekin tertuliak.
-

**Adi jarrera paternalistekin. Denok gara prozesu honen parte, baina denok ez dugu posizio berdinetik jokutzen. Elkartasun piketeaz ari gara, zentzu politiko sakonean, asistentzialismoarekin eta karitatearekin zerikusirik ez duena. Elkartasuna da bakoitzak duen erantzukizuna, zapalketa, urraketa eta desberdintasun sakoneneko sektore eta errealitateekiko konpromisoari, erreparazioari eta justizia sozialari dagokienez.*

Herri bazkaria:

Greba eguneko bazkaria, herriko grebalarien arteko elkargune goxo bezala planteatzen da. Bazkaria prestatzeaz arduratuko diren kideak egon daitezke, edo aurretik, bakoitzak zerbait ekartzeko deialdia luzatu edo bakoitzak berea prestatzekoa. Helburua, elkarrekin egoteko, deskantsurako eta elikaduraren inguruko aldarri eta hausnarketei tartea ematea da.

EGUNEKO MENUA

AURREKO EGUNEAN PRESTATU!

SARRERAK

Sasoiko produktuak eta lokalak erosi

LEHENENGO PLATERA

Salmenta zuzena dauden espazioetan eta inguruko denda txikietan erosi

BIGARREN PLATERA

Multinazionalak ekoiztu eta saltzen dituzten produkturik ez erosi (Coca cola, Nestlé, etab)

POSTREA

Menu honek urte osorako balio du

Arratsaldeko mobilizazioak:

Eguneko mobilizazio jendetsuena izatea nahi da, herrialdeka gehiago zentralizatuz. Mobilizazio guneetarako hurbiltzeko, ibilgailu publikoa ordaindu gabe erabiltzea edo kotxeak antolatzea gomendatzen da.

Mobilizazio hauetan herri akordioan jasotako aldarri ezberdinak azaleratuz. Bestalde, amaieran egingo den irakurketa proposamenak helaraziko dira greba egunaren aurretik (ahal dela astebete lehenago).

Mobilizazioak:

Araba: Gasteiz, Laudio eta Agurain?

Nafarroan: Iruñean, Lizarra, Sakana, Tuteran, Tafalla, Leitzaldean, Baztan+Malerreka +Bortziriak

Gipuzkoan: Donostian, Tolosa, Arrasate, Orereta, Eibar, Goierri, Urola Kosta

Bizkaian: Bilbon, Durango? Lea Artibai? Gernika.

Ipar Euskal Herrian: Hendaian?

GUNE IRAUNKORRAK:

-Zaintza guneak:

1. Zaintza beharrak dituzten herritarrak zaintzeko gunea izango da hau (haur, heldu, adineko..). Espazio goxoa eta zaintzaileak bermatuta izango dituena. Egunean zehar irisgarria den gune bezala planteatu daiteke, bertako dinamika eusteko txanda ezberdinekin, adibidez Txanda hauek lotzeko, herrietako komiteetan tartea zabaltzea proposatzen da. Adi, ea nori betetzen dituen! Ez ditzagun rolak erreproduzitu, baina ez dadila izan gizon batzuen ardurak zuritzeko koartada. Gizonak egon daitezela lehentasunez, behar direnak, ez denak.
2. Zaintza gune hauek, egunean zehar edozein herritar goxo egoteko espazio bezala ere planteatu daitezke, joan eta etorriak egiteko aukera zabalduz.
3. Gainera, herrian ditugun zaintzarako espazioen beharraz, komunitarioki antolatu daitezkeen sareez zein lan banaketa sexualaz hausnartzeko tartea ere hartu daiteke, dinamika ezberdinen bidez.
4. Gune eta lan hauek egunean zehar presentzia izan dezaten, ikusgarritasunerako dinamika/ekintzak egin daitezke, egunaren aurretik zein egunean bertan.

-Propaganda guneak:*

Borroka, interpelazio eta kontzientziazio egun honetan propaganda tresna indartsua izatea nahi da. Prozesuan zehar bezala, eguneko zereginetako bat izango da. Propaganda sortzeko eta zabaltzeko guneekin, parte hartzea bultzatu daiteke, materiala denon eskura jarrita.

*Propaganda eskuragarri: www.denonbizitzakerdigunbean.eus

-Info guneak:

Lan handia egin dugu prozesu honen berri emateko eta grebara deia egiteko. Baina oraindik ere informazioa zabaltzeko beharra egongo da. Greban aldarrikatzen ditugunak azaltzeko, egungo sistema salatzeko, borrokara batzeko deia luzatzeko...

Horretarako, info guneak zabaltzea aukera bat izan daiteke, askotariko informazioa eskura egongo dena, azalpenak emateko prest dauden kideekin.

El 30 de noviembre realizaremos una HUELGA FEMINISTA GENERAL en Euskal Herria. Nos hemos organizado en cada pueblo, en cada barrio y en diferentes herrialdes. Cada una de ellas utilizará criterios acordes a sus necesidades según el contexto para el diseño del día, pero aquí incluimos una serie de ideas y propuestas coordinadas en Euskal Herria:

La huelga es de 24 horas. Durante todo el día, vamos a lanzar un llamamiento para reivindicar las vidas dignas de todas, por el derecho colectivo al cuidado, al fortalecimiento del sistema público, para parar con la privatización de los servicios y revertir el sistema.

A las 00:00 de la noche se pueden realizar iniciativas para dar inicio a la jornada:

- Llamada a la huelga para difundir contenidos y proclamas mientras se hace un pasacalles difundiendo propaganda.
- Chupinazos, dando inicio a la próxima jornada de lucha.
- Desde los campanarios de los pueblos, llamadas con campanas o sirenas.
- Caceroladas...

Piquetes de madrugada:*

La función de los sindicatos suele ser la dinamización de los piquetes que se articulan en la esfera del empleo. Es decir, estas movilizaciones, que suelen ser una herramienta para detener la "producción" de los centros de trabajo, y los sindicatos suelen tener un papel protagonista en la dinamización.

Por regiones se reunirán los sindicatos para prever zonas de piquetes, llevar información a los comités de huelga y realizar labores de contraste. Conviene que en los comités de huelga se disponga de la mayor información posible de los puntos de piquete para luego hacer convocatorias para acercarse a ellos o pensar en cómo comunicar el momento.

El mismo día trataremos de organizar grupos de trabajo con liderazgo en la dinamización de piquetes: con el veto feminista, además, los hombres que participan en los Comités de Huelga también pueden asumir algunas responsabilidades a la hora de trabajar con el resto de hombres.

Objetivos:

- Difusión de los motivos de la huelga (piquetes informativos)
- Impulsar la huelga del mayor número de personas posible y dificultar la práctica laboral "normal"
- Desnormalización y representación de que no se trata de un día normal de trabajo

Ideas:

- Repensar los lemas que se van a lanzar en los piquetes y ser más interpelativos. Por ejemplo, a los hombres que son esquirolas en zonas masculinizadas "tú también necesitarás cuidados" o "repartir tareas de cuidado". También se puede crear alguna canción, algún estribillo... para denunciar las hombrías.
- Utilizar diferentes elementos e imaginarios para interpelar a los hombres (puede servir para piquetes o movilizaciones): entrega de guantes o fregonas para "fregar".

* *Compromisos para piquetes en otro documento.*

- Realizar cortes con elementos de cuidado cuando obstaculizamos las entradas de polígono: jabón, mochuelos, sillas de ruedas...- Caravanas de coches/bicicletas/peatones.
- Hacer "piquetes clásicos" contra las empresas que privatizan los cuidados, marcar a los que están haciendo negocio: entrar a la oficina de directivos...
- Marcajes
- Plantillas con lemas
- Folletos con propuestas de lemas
- 1 cuña para piquetes

Piquetes del mediodía:*

En esta jornada de huelga queremos reforzar el protagonismo de las trabajadoras de cuidados y de las que tienen vulnerado su derecho a huelga. Una de las contradicciones y fortalezas ha sido la participación de las trabajadoras de cuidados en este proceso, siendo conscientes de que muchas no podrían participar en la jornada de huelga.

En esta jornada, y a lo largo de todo el proceso de preparación de la huelga, queremos crear diferentes formatos para impulsar y garantizar la presencia y protagonismo de quienes han visto vulnerado su derecho a la huelga.

Y es que son muchos los sectores y realidades (en su mayoría formadas por mujeres) que tienen dificultades para hacer una "huelga convencional"; las trabajadoras del sector de cuidados con unos servicios mínimos altos o absolutos, las mujeres migradas que viven bajo una ley de extranjería racista y colonial, las trabajadoras del hogar y las cuidadoras que trabajan en la economía provisional y sumergida, las madres y abuelas que no pueden dejar de cuidar a las personas que cuidan, las mujeres precarias del primer sector...

En este sentido, al tratarse de una huelga feminista que da espacio y espacio a sujetos que hasta ahora no se tenían en cuenta, queremos valorar desde realidades concretas las formas de estar y participar en el proceso y la propia jornada de huelga.

Para ello, desde las 11:00 hasta las 12:30, queremos activar momentos de movilización. La gran afluencia de participantes a lo largo de la mañana se representa como un momento de encuentro, abriendo la posibilidad de que acudan también los medios de comunicación.

- Acción desde casa: colgar y mover pañuelos en los balcones, mostrando afecto y solidaridad con la huelga por parte de quienes no pueden dejar de cuidarla.
- Acción coordinada a las 12.00 horas; performance de denuncia con protagonismo de las empleadas de hogar de varias capitales, interpelando a diversas instituciones públicas.
- Ofrecer café solidario/hamaiketako conjunto en las zonas de cuidado.
- Aplaudir.
- Difundir con propaganda en las calles datos que expliquen la precariedad en el ámbito de los cuidados.
- Construir un mural de los cuidados a favor de los trabajadores.
- Realizar marcajes a los responsables de la privatización de los servicios de cuidados.
- Tertulias con las trabajadoras de los cuidados.

** Atentos a las actitudes paternalistas. Todos somos parte de este proceso, pero no todos jugamos desde la misma posición. Hablamos de solidaridad en un sentido profundamente político que nada tiene que ver con el asistencialismo ni la caridad. La solidaridad es la responsabilidad que cada una tiene desde el lugar-posición que ocupa en términos de compromiso, reparación y justicia social para con los diferentes sectores y realidades en situación de opresión, vulneración y desigualdad más profunda.*

Comida popular:

La comida de la jornada de huelga se plantea como un suculento punto de encuentro entre las y los huelguistas de la localidad. Puede haber miembros que se encarguen de preparar la comida, o antes, que hagan una convocatoria para que cada cual traiga algo o que cada cual prepare lo suyo. El objetivo es dar espacio a la convivencia, al descanso y a las reivindicaciones y reflexiones en torno a la alimentación.

MENÚ DEL DÍA

¡COMPRAR DESDE EL DÍA ANTERIOR!

1. PARA EMPEZAR

Compra de productos y locales de temporada

2. PRIMER PLATO

Comprar en espacios de venta directa y pequeños comercios de la zona

3. SEGUNDO PLATO

No comprar productos producidos y vendidos por multinacionales (Coca cola, Nestlé, etc)

POSTRE

Este menú es válido para todo el año

Movilizaciones por la tarde:

Se pretende que sea la movilización más multitudinaria del día, centralizando más en cada herrialde. Para acercarse a los puntos de movilización, se recomienda utilizar el vehículo público sin pagar o organizar coche-caravanas.

En estas movilizaciones tendrán protagonismo los diferentes reclamos recogidos en el acuerdo popular. Por otro lado, se harán llegar las propuestas de lectura que se realizarán al final de las movilizaciones antes de la jornada de huelga (preferiblemente con una semana de antelación).

Movilizaciones:

Araba: Gasteiz, Laudio eta Agurain?

Nafarroan: Iruñean, Lizarra, Sakana, Tuter, Tafalla, Leitzalde, Baztan+Malerreka +Bortziriak

Gipuzkoan: Donostia, Tolosa, Arrasate, Orereta, Eibar? Goierri? Urola Kosta

Bizkaian: Bilbon, Durango? Lea Artibai? Gernika.

Ipar Euskal Herrian: Hendaian?

ESPACIOS PERMANENTES:

Espacios de cuidados:

Este será un espacio de atención a cualquier persona que necesita ser cuidada. Un espacio agradable y que tendrá cuidadores. Se puede plantear como un espacio accesible a lo largo del día, con diferentes turnos para mantener su dinámica. Para enlazar estos turnos, se propone decidir los turnos en los comités de los pueblos. ¡Atención, a ver quién los cumple! No reproducimos los roles, pero que no sean la coartada para justificar los cuidados de algunos hombres. En estos espacios a poder ser que trabajen los hombres, no todos, solamente los necesarios.

Estos espacios de cuidados también se pueden plantear como un espacio para que cualquiera pueda ir durante el día, abriendo la posibilidad de crear espacios para estar y compartir.

Además, se puede reflexionar sobre la necesidad de espacios para el cuidado que tenemos en el pueblo, sobre las redes que se pueden organizar de manera comunitaria, sobre la división sexual del trabajo, a través de diferentes dinámicas.

Para que estos espacios y trabajos tengan presencia a lo largo del día, se pueden realizar dinámicas/acciones de visibilidad, tanto antes del día como en el mismo día.

Espacios de propaganda:

En esta jornada de lucha, interpelación y concienciación se pretende que sea un potente instrumento propagandístico. Al igual que durante el proceso, será una de las tareas del día. Con los espacios de generación y difusión de propaganda se puede fomentar la participación poniendo el material a disposición de todas.

Puntos de info:

Hemos trabajado mucho para dar a conocer este proceso y hacer un llamamiento a la huelga. Pero todavía habrá necesidad de ampliar la información. Para explicar lo que reivindicamos en huelga, denunciar el sistema actual, hacer un llamamiento a unirnos a la lucha...

Para ello, ampliar los sitios de info puede ser una opción a la que se pueda acceder a información variada con miembros dispuestos a dar explicaciones.